



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Mikel Gereka Zelaia
Javier Bereau Miquelarena
Carmelo Ayoroa Hualde

2016ko urriaren 3an, 13:15n, Aparteko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztina —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. ITURENGO UR-BILTEGI BERRIA ETA BERE BIDEA.

Gonbidatuak izan ziren 3 enpresekin burutu diren negoziazioen emaitzak ikusirik eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 74. artikuak xedatzen duena kontutan hartuz, aho batez erabaki da:

1. “Biltegi erregulatzailer berria eta haren bidea Iturenen (Nafarroa)” izeneko proiektuan dauden obrak esleitzea Apezetxea Anaiak SL enpresari, B31950488 IFK, berrehun eta berrogeita bat mila berrehun eta hirurogeita bat eurotan (241.261 €), gehi BEZa. %22,30eko beherapena izan da. Lanak, 14 asteko epean bukatu beharko ditu, hasiera-aktako datatik hasita. Obraren bermea 5 urtekoa izango da.

2. Kontratua sinatzeko ahalmena ematea alkateari.

3. Erabaki hau jakinaratzea esleipendunari, eskaintzak aurkeztu dituzten enpresei eta obrako zuzendariari.

4. Esleipenaren eraginkortasuna etenda geldituko da 10 egun naturaleko epean (Kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 93. artikulua).

Eta bertzerik ezean, 13:30a direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.